

IKASLEEN TXOKOA 90. ZENBAKIA

# Cepa Hernani HHI

**Egileak:**

 1. *Gradu II taldea*
**Literatur txokoa**

 2. *Gradu III Hernani goizeko 3 eta 4 moduloak*
**Euskararen eguna**

 3. *Gradu IIIko Ikasleak*
**Euskaraldia**


1.

2.

3.



## Literatur txokoa

Lehenengo lauhilabete honetan zehar Gradu 2ko ikasleek Barbara Constantineren "Al mal tiempo, mejor cara" liburua irakurtzen dihardute. Hona hemen laburpen txiki bat:

Ferdinand eta Marceline bizilagunak dira, bere kabuz bizi dira Frantziako herritxo txiki batean eta oso bakarrik sentitzen dira, aukeratu gabeko bakardadea baita. Bisita gutxi izaten dituzte, Ferdinandek bere ilobak gerturatzeko zaizkio nohizean behin

eta Marcelineri bere bi alabak hil zitzaizkion kotxe istripu batean.

Ferdinand, bere munduan murgilduta, bere bizilaguna Marceline bakarrik ikustean gaizki sentitzen hasten da eta honi esku bat luzatzea eraba-

kitzen du: egun batean, Marcelinen etxeko teilatua goitik behera erortzen da eta laguntza behar duenez Fernandinek Marceline bere baserrian jasotzen du. Egoera, hasiera batean, arraroa baldin bazen ere oso aberasgarria suertatzen zaio eta bere etxea bakarrik sentitzen den persona orori eskeintzen dio. Horrela, bakartia zen baserri hura bizitzaz eta zoriontasunez betetzen da.

Pixkanaka pixkanaka etxea betetzen joaten da: alargun gelditu den lagun bat, bere ilobak etxetik bidalitako bi ahizpa eta erizaina ikasten ari den neska gaztea, Muriel. Azken honek bere gaztetasun eta freskurarekin etxeko giroa erabat aldatuko du ikuspuntu berri eta etorkizunez betea.

Eleberria arrakastatsua izan zen Frantzian 2017an eta elkarlaguntza aztertzen du, hau da, belaunaldien arteko erlazioa jendearentzako onuragarria dela azpimarratzen da. Gazteak, haurrak eta zaharrak elkarlaguntzen dira eta aurre egiten diote bizitzako momentu gazi-gozoei, beti umorez.

**Egileak:**  
**Gradu II-ko ikasleak**



Barbara Constantine idazlea.

## Euskararen eguna

Abenduak 3, euskararen eguna izanik, gure ikastetxean beste urte betez ere ospatu genuen jaia. Hainbat jarduera burutu genituen talde desberdinekin eta horietako bat *Aupa Etxebeste* filmaren emanaldia izan zen Gradu 3ko ikasleekin. Oso gustukoa izan zuten eta bigarren zatia ikustekotan geratu ginen. Hona hemen filmari buruzko iritzi kritikoa.

Patrizio eta Maria Luisa senar-emazteak, Iñaki semea eta Luziano aitona filma honetako protagonista nagusiak dira, Etxebeste familia osatuz. Etxebestetarrak fabrika baten jabeak dira baina fabrika ez dago jadanik martxan eta egoera honek familiaren diru sarrerak zapuzten ditu. Uda-ko oporrak iritsi dira eta urtero bezala Marbellara joan nahi dute baino etxean igaro behar dute egunak, ezkutututa, bankuak diru kontuak enbargatuak dituztela jakinarazi eta gero. Marbellara doazelaren itxura egiten dute herritarren aurrean eta sinestaraziko diete Andaluziarako bidea berriro hartu dutela, sendiaren estatusa aberatsena dela erakutsiz.

Patrizio ere alkategai izango da udal hauteskundeetan, bere ustezko boterea eta ospea azalduz. Hilabete osoa emango dute etxe barruan sartuta, irudipena landuko dute bai denbora azkarrago igarotzeko baita jateko ere. Bukaeran lapurreta bat ere jasango dute etxean bertan eta horrek guztia hankaz gora jarriko du nahiz eta Etxebestetarrak beraien itxurakeriaz inor ez den ohartzen.

Filmaren gai nagusia besteen aurrean itxurakeria da. Edozer gauza egiteko prest dira gezurra mantentzeko, besteen gainetik mantendu nahi baitute itxura Etxebestetarrek. Hala ere, lau pertsonaia nagusiek garapen pertsonala jasango dute elkarrizketa sakonak manten-

duz eta benetako gauzei balio erreala emanez "bukatu dira itxurakeriak" esateraino. Hala-ber, ez dira xamurrak izango dituzten elkar hartuemanak, aita semeak fabrikarekiko dituzten gorabeherak lekuko, batek saldu eta besteak berriro fabrika martxan jartzea azalduz. Esaldi gogorak botatzen ditu Luziano aitona beste familikideei ere: "Nik ez dut inongo nezesidaderik. Hemen arazoak zuek dituzue. Bizi guztia ederki daramazue besteen kontura, kolpe zoririk jo gabe. Egundirua alperrik botatzen, besteen aurrean zeozer garelako demostratzeko. Zuk duzu kulpaguztia. Eta orain? Nondik txupatu ez dagoenean, zer? Orain, zer?". Baina aitona ere ez du zuzen jokatzeko, maletina diruz beteta izan eta besteei ezer esaten ez dien momentutik.

Filmaren bukaeran, berriz, politikak erreskatatuko dituelaren itxura hartzen du, eta, horrekin batera, jasandako barne aldaketak eta prozesuak ezerezean geldituko direlaren susmoa ikus daiteke. Hipotesi bat besterik ez da, istorioak ate asko utziko baititu zabalik, etxeko pertsianak igotzen dituzten momentutik.

**Egileak:**  
**GRADU III Hernani goizeko 3 eta 4 moduloak**



«Al mal tiempo, mejor cara» liburuaren azala



Aupa Etxebeste! pelikularen azala

# Euskaraldia

Euskaraldia izan dela, eta gure ikasleak euskal idazleen biografiak lantzen ibili dira. Hona hemen bi hernaniar gazte eta emakume euskal idazleen bizitza.

## Uxue Apaolaza Larrea

Hau ere Kattalin Minerren antzera Hernanin jaio zen 1981 urtean eta euskal literaturan haize freskoa eta originaltasuna ekarri du.



### IDAZLANAK

2005ean *Umeeek gezurra esaten dutenetik* kontakizun bilduma plazaratu zuen 24 urte zituela, askoren ustetan begirada ausarta aurkeztu du bere narratiban eta hizkera gordina ere. Lau urte beranduago *Igartza* beka irabazi zuen eta egoera honek 2011.ean *Elkarren eskutik Mea Culpa* eleberria argitaratzea eraman zuen.

### BESTEAK

Volgako Batelariak literatur taldearen kidea da eta Madrilen urte luzez egon da. Hala eta guztiz ere, Hernanira bueltatu da orain dela gutxi.

## Kattalin Miner Pérez



Hernanin jaiotako idazle, kazetari eta ekintzaile feminista dugu. Euskal Herriko Unibertsitatean Kazetaritza ikasketak burutzeaz gain, masterra ere bereganatu zuen Literatura Konparatua Bartzelonako Unibertsitate Publikoan. EHU ere, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna jorratzen duen masterra egin zuen, gai horietan adituak izanik.

### IDAZLANAK

Bere lehen lana eleberri bat dugu *Nola heldu naiz ni honaino* izenekoa, 2017.urtean argitaratuta. Bertan Jezabel dugu protagonista eta gaur egungo gazte baten bizitzaren ildotik aktualitatea kontatzen digu. 2019. urtean *Moio: gordetzea ezinezkoa zen* saiakera liburua argitaratu zuen Tene Mujika beka irabazi eta gero. Bertan transexualitatearen gaia lantzen da elkarrizketak direla medio. Urte bat beranduago, konfinamentuak sortutako egoera dela eta, *Turista Klasea* eleberria aurkeztu du, isolamenduak sortutako egoerak hizpide.

### BESTEAK

Kolaboratzaile gisa are aritzen da euskal komunikabide nagusienetan: EITB, Berria, Argia eta abar. Honetaz gain, ugariak dira feminista gisa egin dituen ekintzak bai kalean bai sare digitaletan, Mendea izeneko talde feministako kidea izanik.

# Bertso Sorta

(Aita semea doinua)

**I**  
*Urte gogorra pasatu dugu  
bi mila hogeiko hura  
hainbat muxuko gora ta behera  
jendearen amorrua.  
Martxoa eta apirila  
etxean konfinatuak,  
lana eta ikasi egin genuen  
gela zulotan sartuak.*

**II**  
*Notiziak benetan larriak  
ziren apurka-apurka,  
positibo eta pcrreak  
telebistatik oihuka.  
Heriotzaren gorakadak  
horixe denon beldurra,  
agur esateko momentua  
inork ez zuen hartuta.*

**III**  
*Eskolatikan jaso genuen  
behar adina laguntza,  
irakasle eta ikasle prestu  
online lanean jardunda.  
Ariketak, laburpenak  
lan eta aurkezpen arruntak  
egunero izaten genuen  
gure emaila lekuan.*

**IV**  
*Urte berria hasita dugu  
ona dirudi itxuraz  
gogorregia ez izatea  
aurrekoaren modura.  
Ardura gabeko jendea  
ibil dadila arduraz,  
horrela irrifar handi batez  
goza dezagun urtea.*

Egileak:  
Gradu III gaueko ikasleak



Arantxa eta Jesus Mari

## «Egoeragatik, pentsatu genuen eskolara ez etortzea, baina gogo handia geneukan etortzeko»

Jesus Mari eta Arantxa, anai-arrebak, Hernaniko HHko ikasleak ditugu eta Hernanin eman dute beraien ia bizitza guztia. Urte luzez lurrindegri baten jabe izan dira, Eguzki izenekoa, eta beraien bizipenak kontatuko dizkigute, lehengoko egoera eta gaur egungo alderatuz. Era berean, nola bertaratu ziren gure ikastetxera ere azalduko digute eta egoera berri honen aurrean beraien kezkek zein gogoetak helaraziz.

**Irakaslea:** Zuek Hernanin jaiok zarete, ezta?

**Arantxa:** Ez. Zazpi urterekin etorri nintzen Erreteritik, eta Jesus Mari, berriz, hemen jaiotzen.

**Irakaslea:** Nolatan gerturatu zineten gure ikastetxera?

**Arantxa:** Gaztetan oso gutxi joan nintzen eskolara, baina beti izan dut oso gustukoa ikastea. Hainbat kursilo ere egin ditut bizitzan zehar, hala ere hasierako hezkuntza hori falta zitzaidala somatzen nuen. Jubilatuta nintzen momentu ona zela pentsatu nuen eta horregatik gerturatu nintzen bertara.

**Jesus Mari:** Niri ere ikastea asko gustatzen zait. Bizikletan istripu bat eduki nuen 1985ean eta horren ondorioz, memoria

trebatu behar nuela konturatu nintzen. Arreba lehenago etorri zen eta ni animatu ninduen ikastetxe honetan apuntatzera. Bigarren kurtsua da aurtengo eta oso gustura nabil bertan! Ordutegi bat jarraitzeak ere eguna antolatzen laguntzen dit.

**Irakaslea:** Aurtengo kurtsua hasiera bereziak ez zizuen ikastetxera ez etortzea pentsarazi?

**Arantxa:** Nik uste dut denoi eman digula zer pentsatua, baina nik nire burua ez dut gaizki ikusten. Hala ere, jende bat somatu dut urduriago, batzuk asko larritzen direlako.

**Irakaslea:** Batzuk etxean-eta gelditzen direla ikusten duzue, eta zuek ez zenuten hori nahi, ezta?

**Jesus Mari:** Pentsatu, pentsatu genuen eskolara ez etortzea; baina gogo handia geneukan etortzeko. Gainera, dauden segurtasun neurriak kontutan hartuta, hau da, maskarilekin, alkoholarekin eta jende arteko distantziarekin, seguru sentitzen gara. Gimnasia egitera ere joaten naiz; bizitza ahal den normalena egiten saiatzen naiz.

**Arantxa:** Nik ere berdin egiten dut. Zenbait gauza ez ditut egiten ezin direlako, baina bestela bizitza normala egiten saiatzen naiz. Hala eta guztiz ere, beldurra badut!

**Irakaslea:** Herria nola ikusten duzue covid egoera dela eta?

**Arantxa:** Batzuk oso estu eta besteak, berriz, libre. Nahiko egoera zaila da, eta ez dira bakarrik gazteak. Batzuek ez dute onartu nahi egoera, eta ez dute ikusi nahi, ez dela horrenbestera izango esanez. Tamaina hartu behar zaio egoera aldebeshoni!

**Irakaslea:** Zuek komertzio bat eduki zenuten Hernanin, ezta? Zenbat urte iraun zuen?

**Arantxa:** 50 urte iraun zuen, nik ireki eta nik itxi nuen. Lurrundegia izateaz gain beste gauza asko ere saltzen genituen dendan, opariak... Baina gaur egun

gurea bezalako dendarik ez dago, saltoki handietara joanez gero denetarik aurkitzen baituzte.

**Irakaslea:** Aldaketarik ikusten al duzue lehengo eta oraingo komertzioen artean?

**Jesus Mari:** Bai, handia. Lehen bezeroekin erlazio estua zenuen, ezagutzen zenuen bezeroa eta familia ere. Gomendioak ematen genizkien eta horren eske etortzen ziren askotan. Gaur egun hartu-eman hori galdu da erabat, eta personeren arteko erlazioa galtzen ari da.

**Arantxa:** Gaur egun on-line erosketak asko ugaltu dira, eta jendeak etxetik mugitu gabe egiten ditu, jende arteko kontaktu hori galduz. Gainera entzunda daukat Donostiako dendetan jendeak zapatak probatu eta gero on-line erosten duela komertzioen galera suposatuz. Gero bertako komertzioa landu behar dela eta baina ez da bertakoa mimatzen.

**Jesus Mari:** Orain, gainera, komertzioetan lan gehiago egiten da bonuak direla eta abar. **Arantxa:** Jendeak diru gehiena kanpoan gastatzen du eta azken orduko konprak etxe ondoan dendetan, baina horrela ezin dira komertzioak mantendu. Kontzientzia gutxi!

**Irakaslea:** Covid-aren gai hau, zuen ustetan, onuragarria ala kaltegarria izan da komertzioarentzat?

**Arantxa:** Egoera honetan, mugimenduen murrizketekin, jendea bertako dendetara gehiago hurbiltzen da eta nire ustez herriko komertzioak irabazi egin du, baina ez dakit luzaro iraungo duen.

**Irakaslea:** Nolakoak izan dira aurtengo eguberriak?

**Arantxa:** Aurreko eguberriekin alderatuta desberdinak izan dira, jende gutxiago bildu gara bazkaldu edota afaltzeko orduan, eta hori nabaritu da! Ezin besarkatu!

**Jesus Mari:** Gainera, segurtasun neurriak, maskarilak eta distantzia... kendu egiten zaituzte elkartzeko gogo, benetan! Arraroak!

**Irakaslea:** Beno, eskerrik asko zuen hitzengatik eta ea beste batean ere aukera daukagun elkarrizketaren bat egiteko!